

## IKASGAIAREN IRAKASKUNTZA-GIDA

<b>Titulazioa:</b> ERIZAINZAKO GRADUA <b>Irakasgaia:</b> II. Practicum <b>Kodea:</b> 27977	<b>Mota:</b> Nahitaezko kanpoko praktikak <b>Eskolen Kronograma:</b> 1.lauhilekoa <b>Hizkuntza:</b> Euskara/Gaztelania <b>ECTS kredituak:</b> 8 <b>Maila:</b> 3
<b>Irakasgaiaren deskribapena eta testuinguruan jartzea:</b> Kanpoko praktika akademikoak unibertsitate-ikasleek egin eta Unibertsitateak ikuskatutako prestakuntza jarduerak dira. Beren helburua ikasleei prestakuntza akademikoan eskuratutako jakintzak aplikatzeko eta osatzeko aukera ematea da, erizain lanbideko jarduerak garatzeko, haien enplegarritasuna errazteko eta haien ekintzailtza-gaitasuna bultzatzeko eskumenak eskuratzen lagunduta.	
<b>Sartzeko baldintzak</b> II. Practicuma egin ahal izateko, I. Practicuma gaitututa izatea da baldintza.	

### IRAKASLEAK

Tel.

e-maila

Irakasgaiaren arduraduna:	Tel.	e-maila
Leire Martín Cuadrado	945 218082	<a href="mailto:leire_martin001@ehu.eus">leire_martin001@ehu.eus</a> <a href="mailto:LEIRE.MARTINCUADRADO@osakidetza.eus">LEIRE.MARTINCUADRADO@osakidetza.eus</a>
<b>Practicumaren Koordinatzailea:</b> Jesús Martín Bezos	945 218056	<a href="mailto:jesus_martin@ehu.eus">jesus_martin@ehu.eus</a> <a href="mailto:JESUS.MARTINBEZOS@osakidetza.eus">JESUS.MARTINBEZOS@osakidetza.eus</a>
<b>Irakasle laguntzailea</b> Denbora osoko irakasle-taldea		

## GAITASUN OROKORRAK

Lanbide-aurreko praktikak, txandaketa kliniko independente moduan eta gaitasunen azken ebaluazio batekin, osasun-zentroetan, ospitaleetan eta beste asistentzia-zentro batzuetan, horien bidez balio profesionalak, asistentzia-komunikazioko gaitasunak, arrazoitze klinikoak, kudeaketa klinikoak eta judizio kritikoa barneratzeko, praktika profesionalean erizaintzako ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak integratuz, titulua osatzen duten helburu orokorretan eta gaietan deskribatutako gaitasunei lotutako printzipio eta balioetan oinarrituta.

Ikasleek ere beharrezko gaitasunak erakutsi beharko dituzte erizainek medikamentuen banaketa eta giza erabilerako produktu sanitarioak agintzeko, erabiltzeko eta baimentzeko. Horiek guztiak, urriaren 23ko 954/2015 Errege Dekretuaren I. eranskinean aurreikusten dira.

## GAITASUN ESPEZIFIKOAK

- G1. Lanbideurreko praktika lantzea, lanbidean indarrean dauden lege- eta etika-printzipioak kontuan hartuz, egoerarekin eta testuinguruarekin bat datorren errespetuzko jarrera izanez, gizabanakoek parte hartzeko, informazioa jasotzeko eta autonomia izateko eskubidea izan dezaten sustatuz eta baimen informatua baliatuz erabakiak hartzeko.
- G2. Bere ikaskuntzarekiko jarrera proaktiboa izatea, eta erantzukizun profesionalarekiko konpromisoa; hau da, informazioa irizpide egokiekin erabiltzea, ekintzei buruz hausnartzea, praktika profesionala ebaluatzea eta aztertzea, eta hobetu beharreko arloak proposatzea eta planifikatzea.
- G3. Arreta integrala, segurua eta kalitatezkoa emateko gai dela erakustea, osasun-egoera ezberdinetan argudiatutako judizio profesionalak identifikatzea, erreferentziazko profesionalekin elkar hartzea pertsonen, familien eta taldeen premietara egokitutako zaintzak aplikatzeko
- G4. Osasun-lantaldeko kide gisa aktiboki parte hartzea: lankidetzajarrera izatea eta lidergo-trebetasunak garatzea, pertsonen zaintzak, osasun-arretaren maila guztietan, jarraitutasuna izango duela bermatzeko.
- G5. Pertsonekin eta haien familiartekoeekin harreman terapeutikoa izateko gai izatea, harreman horren bidez pertsonaren eta familiartekoen premietara egokitzen den arreta profesionala emateko

## IKASITAKOAREN EMAITZAK

Ikasketaren emaitzak Practicumaren ebaluazio-txostenetan deskribatuta daude.

## EDUKIAK

Irakasgaiaren zehar hurrengo prestakuntza-jarduerak programatuko dira:

PRESTAKUNTZA-JARDUERA	IRAKASLEAK	ESKOLA TEORIKOEN ORDUAK
Tutoretzapeko praktika klinikoak	2024/11/11etik 2024/12/20ra	
Praktiketako araudiari buruzko heziketa saioa, Jarduketa-protokoloen, Gaitasunen, Ikasketa-emaitzen eta ebaluazio-jardueren plangintzaren gaineko prestakuntza saioa	Jesús Martín Bezos Leire Martín Cuadrado	2

## METODOLOGIA

Kanpoko praktika akademikootan hainbat eragilek parte hartzen dute. Lehenik eta behin, ikasleak eurak dira ikasketaren ardura dutenak, era aktiboan parte hartuz gaitasunen garapenean eta etengabeko ebaluazio prozesuan.

Gainera, ikasleen kanpoko praktikak arautzeko Euskal Herriko Unibertsitateak onartutako indarreko araudiaren arabera, beste eragile hauek ere badaude praktiketan inplikaturatuta:

### **Instruktoarea (Zentroko tutorea)**

Praktiketan parte hartzen duten zentro kolaboratzaileetako erizaintzako profesional bat da, Unibertsitatearekin elkarlanean, prestakuntzako jarduerak antolatzeko ardura duena.

### **Unibertsitateko tutorea (Irakasleak eta ikertzaileak)**

Zentro kolaboratzaile batean kanpoko praktika akademikoak egiten ari den ikaslearen jarraipena egiteaz eta ikasleari laguntza emateaz arduratzen den irakaslea da.

Irakasgai honetan erabilitako ikaskuntza-metodologia oinarrituta dago arazoak konpontzeko metodo zientifikoaren aplikazioan eta gogoetazko praktika batean; horrek ikasleari laguntzen dio eskemak eta estrategiak progresiboki hartzen, erizaintzako profesional gogoetatsu bihurtzeko.

Praktiken planteamendua erizaintzako ikasleari eskainitako atentzio indibidualizatuan oinarritzen da. Irakasleak, instruktorearen eta unibertsitateko tutorearen laguntzarekin, dituen ikaskuntzako helburuak zehazten ditu ezarritako gaitasunak kontuan izanik.

Irakasgai honetako kredituak presentzialak dira erabat, 1837/2008 Errege Dekretuaren erregulazioari jarraikiz, bertan adierazten baita Erizaintzako Graduko ikasleek 2.300 ordu eman behar dituztela praktika asistentzialak egiten.

Practicumeko ikaskuntza-prozesuan, gutxienez, hiru tutoretza izaten dira:

1. Tutoretza: Praktika-moduluaren hasieran izaten da. Horretan, ikaskuntza-akordioa egiten da.
2. Tutoretza: Moduluaren erdian izaten da. Ikaslearen ikaskuntza-prozesua eta ezarritako gaitasunen lorpena ebaluatzen eta sustatzen da, eta, behar izanez gero, ikaskuntza birbideratzen da.
3. Tutoretza: Praktika-moduluaren amaieran, ikaskuntza prozesua, ikaskuntzaren emaitzak eta Practicumaren hasieran zehaztutako gaitasunak ebaluatzen dira.

**Estrategia metodologikoak** honako hauek dira:

- **Azalpen-saioak** ikasleei honako informazio hau eskaintzeko:
  - Praktiketako araudia.
  - Segurtasun klinikoa praktikan. Istripu biologikoak eta gertakari baten aurreko protokoloak.
- **Tutoretzapeko praktikak** egitea (ospitalea, osasun-zentroa edo zentro sozio-sanitarioa) agertoki kliniko errealetan: bertan, ikasleek, behaketaren, esperientziazkoaren, ekintzari buruzko gogoetaren, bilaketaren eta analisiaren bidez, beren mailarako ezarritako gaitasun profesionalak lortu eta garatuko dituzte.
- Ikaslearen **tutoretzak** instruktorearekin (zentroko tutorea) eta unibertsitateko praktiketako tutorearekin.

### Ebaluazioa egiteko tresnak:

1. Gaitasunen eta ikasitakoaren emaitzen dokumentua: ebaluazioa egiteko gaitasunak, irakaskuntza-emaitzak eta errubrikak ditu.
2. Gaitasunen garapenaren ebidentzien dokumentua: Praktiken erdian eta amaieran egin behar du ikasleak, eta, bertan, bere gaitasunen garapenari buruzko ebidentziak erregistratu behar ditu.
3. Prozedurak egiteko gaitasunari buruzko dokumentua: I., II. eta III. Practicumetan zehar, ikasleak prozeduren gidan deskribatutako zazpi prozedura egiteko gai dela egiaztatu beharko du gutxienez (gidako 1 eta 7 arteko prozedurak). Irizpide hau ez betetzea penalizazio bat suposatuko du azkeneko kalifikazioan
4. Lan akademikoak: Egonaldi kliniko bakoitzean ikasle bakoitzak lan akademiko bat (arrazoinamendu klinikoaren lana) egingo du. Jarduera hau aurrera eramateko, nahitaezko baldintza da ikasle guztientzat pazientearen/egoilarraren baimena lortzea.

### EBALUAZIOA

Ebaluazioa etengabeko prozesu bat da, eta, bertan, ikasleek gaitasunetan emandako aurrerapausoak egiaztatu eta argudioekin frogatu behar dituzte. Unibertsitateko tutoreak ebaluatuko ditu egindako praktikak instruktorearen eta ikaslearen txostena oinarri, betiere ezarritako ebaluazio-irizpide eta -erremintak aintzat hartuta.

Azken kalifikazioa, ikasleak horretarako ezarritako tresnetan ematen dituen ebidentzietatik lortuko da.

Taula honetan laburbiltzen da gaitasunen, ikasketa-emaitzen eta ebaluazio-jardueren arteko erlazioa:

GAITASUNAK	IKASKETA-EMAITZAK	EBALUAZIO-JARDUERAK	AZKEN KALIFIKAZIOAREN %
G1, G2, G3, G4, G5	5 gaitasunen ikasketa-emaitzak	Tutoretzapeko praktika klinikoak ebaluazio triangulatuarekin	%80
G3	3.gaitasunaren IE2, IE3 eta IE4	Arrazonamendu klinikoaren lana	%20

Azken kalifikazioa 10etik 7 baino baxuagoa bada, ikasleek txosten bat jasoko dute identifikatutako hobekuntza-arloekin.

Ebaluazioan gogoan izan beharreko irizpideak:

- II. Practicuma gainditzeko beharrezkoa da eskakizun gisa identifikatutako ikaskuntza-emaitzak betetzea eta ikasketa-emaitza guztiak 5 batekin GAINDITZEA.
- Arrazonamendu kliniko derrigorrezko ebaluazio aktibitatea da, lan akademiko honen ez egiteak praktiken EZ GAINDITZEA suposatuko du.
- Arrazonamendu klinikoaren kalifikazioa 5 baino txikiagoa izatekotan, Practicumeko gehiegizko kalifikazioa 5-ekoa izango da.

Euskal Herriko Unibertsitateko graduko titulazio ofizialetako ikasleen ebaluazioa egiteko indarrean den araudia kontuan izanik, ikasle bakoitzak deialdi bakar bat izango du urtero irakasgai hau gainditzeko.

Praktiken % 100era bertaratzea derrigorrezkoa da. Dagokion praktika-aldiari esleitutako denboraren % 50 bete ez duten ikasleei irakasgaiaren aktan Ez aurkeztua agertuko zaie. % 50eko edo gehiagoko bertaratzea beteta praktikak utzi dituzten ikasleei, aldiz, Ez gainditua agertuko zaie.

Ikasleak gaixotasun bat pairatzeagatik praktikak dagokion praktika-aldian egin ezin izango dituzte, egoera hori praktiketako komisioak baloratuko du era pertsonalizatuan.

Praktiken Batzordeak deialdi horren data zabaltzen duen erabakitze gaitasuna du. Soil-soilik salbuespenezko eta behar bezala justifikatutako kasuetan erabil dezake, eta, betiere, ezarritako egutegi akademikoaren barruan. Salbuespen horrek ez du eraginik deialdi honetan egin eta gainditu gabeko praktikengan.

## EZOHIKO DEIALDIA

Ez da aurreikusi.

## NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

- Arauzko uniformea eta eskalapoia.
- Erlojua segundo-orratzarekin.
- Bolaluma, punta biribilduneko artaziak eta libreta oharrak idazteko.
- Ikasleek identifikazio-txartel bat eraman beharko dute beti, dela zerbitzu-erakundeak emandakoa dela UPV/EHUko ikasle-txartela.

## INFORMAZIO-ITURRIAK

### Oinarrizko bibliografia

- \* Argomaniz J, Calle MD, Herrero S, Martín J, Martín L. Competencias de Grado en Enfermería: Practicum IP-I-II-III-IV-V. 2ª ed. Vitoria-Gasteiz: Osakidetza; 2023.
- \* Hinkle JL, Cheever KH. Brunner y Suddarth. Enfermería Médico-Quirúrgica. 14ª ed. Barcelona (España): Wolters Kluwer; 2018.
- \* Moorhead S, Swanson E, Johnson M, Maas ML. Clasificación de Resultados de Enfermería (NOC). Medición de Resultados en Salud. 7ª ed. Barcelona: Elsevier; 2024.
- \* NANDA International. Diagnósticos Enfermeros. Definiciones y Clasificación 2021-2023. Barcelona: Elsevier; 2021.
- \* NANDA-I International. Nursing diagnoses: Definitions and Classification 2024-2026. 13th ed. US: Thieme. 2024.
- \* Norris TL. Porth Fisiopatología. Alteraciones de la salud. Conceptos básicos. 10ª ed. Barcelona: Wolters Kluwer; 2019.

- \* Smith SF, Duell DJ, Martin BC, Aebersold ML, González L. Habilidades para enfermería clínica. 9ªed. Vol I y II. Madrid: Pearson; 2018.
- \* Wagner CM, Butcher HK. Clasificación de Intervenciones de Enfermería (NIC). 8ª ed. Barcelona: Elsevier; 2024.

### Sakontzeko bibliografia

- \* 1/2015 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 24koa, Sendagaien eta Osasun Produktuen Bermeen eta Erabilera Zentzuzkoaren Legearen testu bategina onartzen duena. BOE 177. zk.; 2015/07/25 [kontsulta: 2018/02/10]: 62935 – 63030. Hemen eskuragarri: [https://www.boe.es/diario\\_boe/txt.php?id=BOE-A-2015-8343](https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2015-8343)
- \* 1718/2010 Errege Dekretua, abenduaren 17koa, errezeta medikoari eta banaketa-aginduei buruzkoa. BOE 17. zk.; 2011/01/20 [kontsulta: 2018/02/10]: 6306 – 6329. Hemen eskuragarri: <https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2011-1013>
- \* 954/2015 Errege Dekretua, urriaren 23koa, erizainek gizakientzako sendagaiak eta osasun-produktuak aholkatu, erabili eta banatzeko baimena ematea arautzen duena. BOE 306. zk.; 2015/12/23 [kontsulta: 2018/02/10]: 121483 - 121498. Hemen eskuragarri: [https://www.boe.es/diario\\_boe/txt.php?id=BOE-A-2015-14028](https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2015-14028)
- \* 1302/2018 Errege Dekretua, urriaren 22koa, erizainek gizakientzako sendagaiak eta osasun-produktuak aholkatu, erabili eta banatzeko baimena ematea arautzen duena. BOE 256. zk.; 2018/10/23 [kontsulta: 2018/02/10]: 102636 - 102643. Hemen eskuragarri: [https://www.boe.es/diario\\_boe/txt.php?id=BOE-A-2018-14474](https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2018-14474)
- \* RNAO. Jardunbide egokien gida: zainbide baskularra. 2ª ed. Ontario: RNAO; 2021. Disponible en: [Acceso-Vascular\\_2021.pdf \(bpso.es\)](#)

### Helbide elektronikoko interesgarriak

- \* EHUko liburutegi birtuala. Hemen eskuragarri: <http://www.biblioteca.ehu.es/p006-9117/es>
- \* Jardunbide egokien gidak . BPSO. Eskuragarri: [Guías de buenas prácticas - BPSO España](#)
- \* NNNConsult. Hemen eskuragarri: <https://www.nnnconsult.com/>
- \* Osanet. Hemen eskuragarri: Euskal Osasunaren ataria: <http://www.osanet.euskadi.net/r85-13492/es>
- \* Pubmed. Hemen eskuragarri: <http://www.ncbi.nlm.nih.gov/sites/entrez>
- \* Up to Date (Osakidetza Intranetaren bidezko sarbidea). Hemen eskuragarri: <http://www.uptodate.com/es/home>

### OHARRAK

Izena emandako ikasle guztiek praktiketako zentroek ezarritako konfidentzialtasuna eta sekretu profesionala bete beharko dute, baita eskatutako eskakizunak ere.

2024/2025 ikasturte hasieran, ikasleek honako dokumentu hauek izango dituzte eskura eGelan:

- Irakasgaiaren gida, gaitasunen eta ikasitakoaren emaitzen dokumentua, gaitasunen garapenaren ebidentzien dokumentua, prozedurak egiaztatzeko gida, lan akademikorako dokumentu-eredua, lan akademikoen gida eta jarduketa-protokoloak.